


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 2,0 hazi dira 2021eko abenduan

Urte arteko terminoetan, 2021eko abenduan 2020ko abenduaren aldean, kostuak % 5,5 igo dira

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 2,0 igo da 2021eko abenduan, aurreko hilaren aldean. Aurreko urteko hil berarekin alderatuta (2021eko abendua, 2020ko abenduarekin alderatuta), kostuak % 5,5 hazi dira.

Etxegintzaren sektoreko kostuak % 1,7 igo dira hil arteko terminoetan, eta Obra Zibilekoak % 3,2. 2020ko abenduarekin alderatuta, prezioak % 5,0 igo dira Etxegintzaren kasuan eta % 7,6 Obra Zibilarenean.



Aurreko hilaren, 2021eko azaroaren, aldean, **lehengaien** kostuak % 2,6 igo dira, eta **eskulanaren** kostua, berriz, egonkor mantendu da (% 0,0). Urtetik urterako terminoetan, lehengaien kostua % 6,7 igo da, eta eskulanarena % 1,9.

Etxegintzaren sektoreak % 2,2ko hil arteko igoera izan du bere lehengaien kostuan. Obra Zibilean, berriz, igoera % 4,2koa izan da. Urte arteko bilakaeran, Etxegintzako lehengaien kostuak % 6,0 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 9,4.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2021

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	112,1	2,0	5,5
Eraikinak	111,8	1,7	5,0
Obra zibila	113,6	3,2	7,6
Lehengaiak	112,7	2,6	6,7
Eraikinak	112,3	2,2	6,0
Obra zibila	114,7	4,2	9,4
Laneskua	110,2	0,0	1,9

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Urtarrilaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Sektoreak kontsumitutako lehengaien prezioari dagokionez, honako hauek izan dira hazkunderik handienak izan dituztenak 2021eko abenduan, 2020ko abenduaren aldean: *Petrolio*a *fintzea* (% 37,4 gora), *Metalurgia* (% 28,7) eta *Energia elektrikoa eta gasa* (% 28,3). Prezioetan hazkunde neurritsuenak izan dituzten sektoreak honako hauek izan dira: *Kautxua eta plastikoa* (% 1,6ko hazkundera), *Makineriaren fabrikazioa* (% 2,3koa) eta *Material elektrikoa* (% 2,5ekoa).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Abendua 2021

	m / m-12
Ezmetalezko meak	3,9
Zuraren eta kortxoaren industria	11,7
Petrolioaren finntzea	37,4
Industria kimikoa	14,9
Kautxua eta plastikoa	1,6
Produktu mineral ez-metalezkoak	5,9
Metalgintza	28,7
Metalezko artikulatuak	5,7
Material elektronikoa	4,3
Material elektrikoa	2,5
Makineriaren fabrikazioa	2,3
Altzarigintza	3,2
Energia elektrikoa eta gasa	28,3

Oinarria 2015=100

(p) Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Urtarrilaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62